

Après la distribution des prix aux lauréats des divers concours, un chœur chanté par la jeunesse a clôturé la fête.

Voici la liste des lauréats:

1^o *Concours de poésie Basque*.—Pas de premier prix. 2^e prix, Lopez-Alen, de St-Sébastien; 3^e prix, P. Dibarrart, de Baïgorry.—Mention honorable; de Echegaray (Boniface), de Saint-Sébastien.

2^o *d'Improvisationes*.—1^{er} prix, Marie Argain, de Cambo; 2^e prix, P. Duhaldebehère, de Sare; 3^e prix, J.-P. Carrère, de Louhossoa.

3^o *de Danses Basques*.—1^{er} prix, J. Ithurbide, de Larressore; 2^e pris, P. Oxocelhay, de Cambo; 3^e prix, P. Camino, de Louhossoa.

4^o *de Chirola*.—1^{er} prix, J. Olhagaray, d'Ustaritz; 2^e prix, Joseph Zubietza, de Macaye; 3^e prix, Baptiste Dunab, de Macaye.

* * *

MAITEGARRIA

— — —

Egun eta gau zenbait denboran
Bere aurraren gaitza sendatzen,
Ama beartsu eta alargun bat
Dago biotza guztiz urratzen.
Bañan badakar bere onetara,
Bazayo irria aurrari azaltzen,
Bai! ala nola egun-sentian
Legun legun ta pištaka argitzen
Eguzkiaren erraňu ureak
Duben bezela goiza pistutzen.

Eta orain arte motel zeudenak
Begi beltz ayek erdi ichiak
Lenaz ziranak alaiak eta
Izarrik bezin diz-dizariak,
Badatoz ere bere onetara;
Baita gorritzen masaill churiak
Lorak berritzen dituben gisa
Datorrenean udaberriak;
Zer atsegíña amari senti
Diyon aurraren egun-sentiak!

O! ama, ama, izen galanta
Bai beste bat ezin aiňakoa!
Munduko gaitzak ta naigabeak
Mende daukaten zure kolkoa!
Adiarazi nola ta nondik
Amaren maitetasun osoa!
Eta alarguna, pobre, beartsu,
Danean besten biarrekoia
Zu zeran gisa, agertzen zera
Oraindik ere audiagoa...!

Uda da.... ta Donostia dago,
Alaitasunaz dana jantzirik,
Kanpotar jende, aberastasun
Ta zorionak alkarr baturik:
Aurtzayak non nai eche aundioko
Aur apainduai kontu egiňik,
Emakumeen edertasunak
Beren gorputzak sedaz bildurik:
Bitarte ontan nor da oroitzen
Nonbait badala negar malkorik...!

Beltz ipiñia, aur bat besoan
 Buru chikia estalirikan
 Emakume bat dator poliki
 Bere aurchoa alai nairikan!
 Gaiso samurra! lore goiztarra
 Egondu dana igarturikan!...

.

 Gaur Donostian ez da aditzen
 Iñon festaren otsa baizikan
 Ta gora beran dabilen jende
 Aren algarak ez! besterikan!

Denda eder baten aurrean geldi
 Da alarguna, ta aur besokoak
 Ezin asperturikan ikustez
 Dagoan dauden jostalluchoak!

Aurrak erosi dio eskatzen
 Bañan zerekin, ama gašoak
 Ez dauka! dira aberats aurruk
 Dituzten gauzak bezelakoak...!
 Eta amak berri...! ezin erosi!..
 Negar ta negar kutun mintzoak!

Illunabarra dator, jarririk
 Illun Donostiako uria;
 Mendi atzetik oso-osoak
 Jaikirik mantso, an, illargia!
 Eta gabeko beltztasunean,
 Itzal tartean gora kalia,
 Igarotzen da iſill ta kontuz
 Gure alargun emakumia,
 Lo-lo dubela bular ondoan
 Bere biotzen puska maitia!!

FRANZISKO LOPEZ ALEN.

